



## Berdintasunerako agente lanpostua betetzeko aldi baterako kontrataziorako hautagaien zerrenda eratzeko deialdia

### LEHENA. - ARAU OROKORRAK

- 1.1. Deialdia egiten da hautapropa bidez eratzeko, oposizio-lehiaketaren prozedura baliatuz, izangai zerrenda bat, berdintasunerako agentearen lanpostua betetzeko, administrazio-kontratuaren bidez, Mancomunidad de Valdizarbe / Izarbeibarko Mankomunitatean sortzen diren aldi baterako beharrei erantzutearren.
- 1.2. Lanpostuak B mailako lansariak izanen ditu, bai eta plantilla organikoan jasotzen diren osagarri guztiak ere, bat etorritik ezarrita dagoenarekin Lansarien Behin-behineko Erregelamenduan (uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren bidez onetsia) eta Mancomunidad de Valdizarbe/Izarbeibarko Mankomunitateari aplikatu behar zaizkion gainerako xedapenetan, baita Berdintasun teknikari lanposturako plantilla organikoan ezartzen diren osagarriak ere.
- 1.3. Oro har, lanpostuan honako eginkizun hauek bete beharko dira, betiere bat etorritik 'Nafarroako toki entitateetako berdintasun alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea' dokumentuarekin:

*\*Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko estatuko, foruko edo udaleko araudia eta/edo politikak aldatzen badira, eginkizun horiek egokitu ahal izango dira.*

Mancomunidad de Valdizarbe/Izarbeibarko Mankomunitatea	RESPONSABLE DEL SERVICIO DE IGUALDAD	V. 2022
<b>Misión:</b> Impulsar políticas en materia de igualdad entre mujeres y hombres en todos los ámbitos de la entidad, trabajando a nivel interno de la propia Mancomunidad y a nivel externo, dirigido a los pueblos que forman parte del Servicio de Mancomunidad y a su ciudadanía. Todo ello con el fin de conseguir un avance hacia la igualdad real entre mujeres y hombres en el territorio de la Mancomunidad de Valdizarbe /Izarbeibarko Mankomunitatea. El trabajo a desarrollar desde el área de igualdad, está basado en el <b>Itinerario para la Planificación, gestión y evaluación del trabajo de las áreas de igualdad de las entidades locales.</b>		
AREA	RESPONSABILIDADES	
1. Gobernanza local y transversalidad de género	<b>L.1. Estructuras institucionales para la igualdad de género.</b> - Asesorar a la Comisión de Igualdad de Mancomunidad, apoyar y participar en comisiones de igualdad de los municipios que ya cuentan con ella e impulsar la creación de las mismas, allí donde nos las hay. - Proponer y dar a conocer mecanismos de coordinación con el resto de áreas de la Mancomunidad y también con los municipios que forman parte de esta. - Coordinar con otros agentes del territorio y participación activa en la Red de Técnicas de Igualdad de las entidades locales de Navarra.  <b>L.2. Capacitación técnica y política</b>	



	<p>Diseño, gestión y coordinación de formación dirigida a personal político del conjunto de municipios que forman parte de Mancomunidad así como del personal técnico de Mancomunidad y de los diferentes ayuntamientos.</p> <p><b>L.E.3 Elaboración de materiales y herramientas de trabajo dirigidas a la transversalidad de género.</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Proponer, asesorar y gestionar la elaboración de materiales que apoyen la transversalidad de género en las distintas administraciones.</li><li>- Proponer el desarrollo de las medidas del Plan de Igualdad de la empresa pública de Mancomunidad "Servicios Arga Valdizarbe" y apoyar a la Dirección en la coordinación del Grupo de Conciliación de la empresa.</li><li>- Proponer la elaboración de estudios e informes que muestren la situación de las mujeres en el territorio y de las distintas brechas de género, así como informará con sus propuestas.</li></ul>
2. Violencia contra las mujeres	<ul style="list-style-type: none"><li>- Participar en la coordinación, gestión y evaluación <b>del I Protocolo de coordinación en la atención a la violencia contra las mujeres de Zona Media y Valdizarbe</b> en coordinación con el Consorcio de Desarrollo de Zona Media.</li><li>- Desarrollar acciones de prevención, sensibilización e información en esta materia, incluidas las distintas campañas que se realizan en momentos ya señalados</li></ul>
3. Cuidado, corresponsabilidad y conciliación	<p>L.1. Impulsar y desarrollar los <b>Pactos por los Cuidados</b> en coordinación con el Consorcio de Desarrollo de Zona Media para facilitar la adhesión de todos los ayuntamientos de la Mancomunidad conforme a una distribución territorial (Zona Media y Valdizarbe).</p> <p>L.2. Impulsar y desarrollar, desde un enfoque ECOFEMINISTA, todo tipo de acciones que tengan que ver con la puesta en valor de los cuidados, la corresponsabilidad, autocuidados, cuidados a procesos de vida, cuidados a comunidad, cuidados a naturaleza.</p> <p>Dada la incidencia de estas medidas, se realizarán en coordinación otras entidades locales y en el caso de medio ambiente con Responsable y Técnico de residuos y Medioambiente y Técnico Preventivo del Agua.</p>
4. Empoderamiento de las mujeres, su participación sociopolítica y cambio de valores	<p>Generar vía para reparar a mujeres que la historia no reconoció. Recopilar historias de mujeres de los pueblos y darlas a conocer, visibilizar a mujeres referentes en diferentes ámbitos.</p> <p>Generar información que permita a las mujeres tomar conciencia de cómo les afecta las desigualdades, discriminaciones de género.</p> <p>Organización celebración del día 15 de octubre "día internacional de la mujer rural.</p> <p>Establecer mecanismos coordinación con asociaciones de mujeres de la zona y otros colectivos sociales. Ofrecerles apoyo, asesoramiento y colaboración.</p> <p>Participación en campañas y actividades de sensibilización, información, que fomenten empoderamiento.</p> <p>Fomentar e impulsar programas que tengan como objetivo el cambio de valores hacia una sociedad más igualitaria</p> <p>Promover y visibilizar modelos de masculinidad no hegemónicos.</p>



5. AGENDA COMARCAL	21	Contribuir a través del asesoramiento, participación, impulso y colaboración a que la estrategia de desarrollo de la entidad, del territorio tenga un impacto positivo en la igualdad de género. Desarrollo y Seguimiento de Agenda 21 Comarcas: Acciones por la Igualdad.
--------------------	----	--

#### 1.4. Lana garatzeko irizpideak, orokorrean, hauek izanen dira:

6. Coordinación y colaboración	y	La colaboración con las diferentes áreas de Mancomunidad, así como con los ayuntamientos y la coordinación son pilares sobre los que se sustenta el trabajo del Servicio de Igualdad, ya que ambas son claves para la transversalización del enfoque de género en todos los ámbitos en los que se desarrollan políticas públicas en las entidades locales y de la misma manera, mejorar la gestión general de Mancomunidad.
7. Formación		La Mancomunidad solicitará y facilitará la formación de la persona técnica de igualdad en cuestiones relacionadas con su ámbito de trabajo, así como en cuestiones relacionadas con gestión, comunicación, trabajo en equipo, prevención de riesgos. Con el objetivo de mejorar sus competencias laborales.
8. Planificación y seguimiento y evaluación	y y	Todo el trabajo del Servicio se establecerá a través de planes de trabajo (anuales y plurianuales), que permitan planificar el trabajo a desarrollar desde el área, así como el establecimiento de herramientas de seguimiento y evaluación.
9. Comunicación		Comunicación tanto interna como externa a través de los cauces establecidos, de todo el trabajo desarrollado desde el área.  Coordinación con Servicio de Euskera con el fin de garantizar las comunicaciones a la ciudadanía y las publicaciones del Servicio en bilingüe.

#### ESKATUTAKO PROFILA

Conocimientos	Habilidades	Competencias
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Conocer legislación referente al ámbito de trabajo y la referida a la administración.</li> <li>▪ Conocer metodologías, técnicas intervención y evaluación aplicables en la igualdad entre mujeres y hombres</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Entender realidad territorial</li> <li>▪ Habilidades para trabajo en colaboración</li> <li>▪ Gestión del tiempo, planes y proyectos</li> <li>▪ Comunicación, coordinación con otras instituciones, organizaciones, entidades públicas y privadas y personas en general</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Orientación a establecer procesos para avanzar hacia la igualdad real entre mujeres y hombres</li> <li>▪ Orientación a las personas y entidades usuarias</li> <li>▪ Orientación a la Calidad</li> <li>▪ Trabajo en equipo</li> </ul>
Cualificación	Experiencia	
<i>Nivel académico</i>	<i>Especialidad</i>	
Diplomatura o licenciatura	- Formación mínima de 250 horas en Igualdad de oportunidades - Euskera B2	Meritorio



## **BIGARRENA. -BETEBEHARRAK.**

2.1. Parte hartu nahi dutenek, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko estaturen batekoa, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera, langileen zirkulazio askea aplikatzen den estaturen batekoa.

Parte har dezakete, era berean, espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuetakoa herritarren ezkontideek, edo aipatutako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan sartutako estatuetakoa herritarren ezkontideek, zuzenbidez bananduta ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bananduta ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira edo, hortik gorakoak izanez gero, haien kontura bizi badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko gehieneko adina gainditua ez izatea.

c) Honako hauen jabe izatea:

-Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, diplomadun, lizentziadun, edo gradudun titulua edo balio bereko beste bat izatea, edo titulu hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekina. Baldin atzerrian lortutako tituluak badira, eduki beharko da homologazioa frogatzen duen agiria.

-Berdintasunean 250 orduko gutxieneko formakuntzaren titulua

-Euskarazko B2 maila; dagokion titulua edo ziurtagiri ofiziala aurkeztu behar da hura frogatzeko. Titulu edo ziurtagiri hori ez dutenek, euskaraz jakitea frogatzen ahalko dute proba bat gaindituz, eskatzen den hizkuntza-mailakoa. Interesdunek proba horretan parte hartzea eskatu beharko dute deialdirako eskabidea aurkeztean (II. eranskina).

d) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.

e) Desgaitua edo gabetua ez egotea eginkizun publikoetan jarduteko, eta ez egotea administrazio publikoren baten zerbitzutik kendua.

f) B motako gidabaimena izatea.

2.2. Oinarri honen 2.1.c) atalean eskatzen den titulazio betebeharrak agiri bidez frogatu beharko dira eskabidearekin batera.

2.3. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira oinarri honetan ezarritako baldintza guztiak, bai eta hautapen prozesuak eta kontratazioak iraun bitartean ere.



## HIRUGARRENA.- PROZEDURA

3.1 Ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoan Sartzeko Erregelamenduaren 42. artikuluan xedatutakoaren arabera, aldi baterako langileak hautatzeko prozedurek kontratazioan ahalik eta azkarren aritzeko aukera eman beharko dute. Nolanahi ere, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatuko dira, baita publizitatea ere.

3.2 Deialdia Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren lan eskaintzen web orriaren bidez argitaratuko da.

Halaber, oinarriak Mankomunitate honetako iragarki oholean, Mankomunitatearen web orrian (<http://www.mancomunidadvaldizarbe.com>).

3.3 Izangaiek dagokien eskabidea aurkeztu beharko dute, deialdi honetako I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera, **2023ko urtarrilaren 5eko 23:59ak baino lehen**, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako bideetako bat erabiliz (Mankomunitatearen erregistro elektronikoa, Posta Bulegoa, Erregistro Orokorreko Laguntza Bulegoa, etab.), edo Izarbeibarko Mankomunitatean bertan. Mendigorria, 4. zk., Gares.

Epe hori baino lehen, deialdia egin duen Mankomunitatearen administrazio-lana errazteko, dokumentazioa aurkeztu izanaren egiaztatzea bidali beharko dute helbide elektronikoa honetara: [www.mancomunidadvaldizarbe.com](http://www.mancomunidadvaldizarbe.com). Eskabide horiek, edukiari dagokionez, deialdi honetan I. eranskin bezala argitaratutako ereduaren arabera izan beharko dute.

Eskaera postetxe batean aurkeztea erabakiz gero, gutun-azal irekian egingo da, postako langileek data eta zigilua jar diezazkieten ziurtatu baino lehen. Posta elektronikoa bat bidali beharko da aurrez zehaztutako helbidera, egoera hori adierazita.

3.5 Eskabidearekin batera, izangaiek 2. C) eta G) oinarriaetan Nortasun Agiri Nazionalaren, gidabaimenaren eta eskatutako titulazioaren fotokopia (edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan dagoela egiaztatzen duen agiria) aurkeztu beharko dute, baita baloratu beharreko merezimenduak ere.

Izangaiek eskabidean helbide elektronikoa bat adieraziko dute jakinarazpenetarako.

Ezgaitasuna duten izangaiek ezgaitasuna dutela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute parte hartzeko eskabidearekin batera. Ezgaitasuna organo eskudunak eman beharko du, eta ezgaitasun hori lanpostuan normaltasunez aritzea galarazten dion gaixotasun edo akats fisiko edo psikikoa ez dela egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Izangai horiek behar diren ariketak egiteko denbora eta baliabide egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte. Kasu horretan, eskabidean adierazi beharko dute, eta aparteko orri batean jasoko dituzte ezgaitasuna eta eskatutako egokitzapenak.



## **LAUGARRENA.- KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA.**

4.1. Kalifikazio epaimahaia honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua: Mancomunidad de Valdizarbe/Izarbeibarko Mankomunitateko Presidentea
  - o Ordezkoa: Mancomunidad de Valdizarbe/Izarbeibarko Mankomunitateko Presidenteordea
- 1. batzordekidea: ..., Mancomunidad de Valdizarbe/Izarbeibarko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorreko ordezkaria
  - o Ordezkoa: ..., Mancomunidad de Valdizarbe/Izarbeibarko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorreko ordezkaria
- 2. batzordekidea: Oihana Gallo San Roman, Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Teknikaria.
  - o Ordezkoa: eskuordetza ematen zaionA
- 3. batzordekidea-idazkaria: Jaione Mariezkurrena Baleztena, Mancomunidad de Valdizarbe/Izarbeibarko Mankomunitateko Idazkaria
  - o Ordezkoa: eskuordetza ematen zaionA

4.2. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, gertatzen direnean urriaren 1eko 39/2015 Legean abstentziorako aurreikusiak dauden arrazoiak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea). Halaber, zilegi izanen da epaimahaikideak errekusatzea, inguruabar horiek gertatzen direnean.

Epaimahaia aldatzen bada, abstenitzeko edo errekusatzeko legez ezarritako arrazoiak direla medio, izangai onartu eta baztertuen zerrendekin batera emanen da horren berri.

4.3. Hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da epaimahaia. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ez eta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa ez badago bertan. Halaber, epaimahaiaren eraketak eta jardunak balio izateko, mahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoek egon beharko dute bertan.

4.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdien oinarriak interpretatu eta aplikatzeko garaian sortzen diren arazoak. Berdinketa kasuan, Presidenteak bere kalitatezko bozka erabili ahal du.

4.5. Epaimahaiak profesional adituen aholkua eskatzen ahalko du; beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haiexetan bakarrik emanen diete laguntza epaimahaiari.

## **BOSGARRENA.- BEHIN BEHINEKO ZERRENDAK.**

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da Mankomunitatearen iragarki oholean eta [www.mancomunidadvaldizarbe.com](http://www.mancomunidadvaldizarbe.com) webgunean.

Argitaratu eta biharamunetik **hiru egun balioduneko epean**, izangaiek erreklamazioak aurkeztu edo eskabidean egindako akatsak zuzentzen ahalko dituzte.





Bazterturik ez badago, behin betiko zerrenda argitaratuko da zuzenean, hautaprobak egiteko eguna, ordua eta tokia adierazita.

### **SEIGARRENA.- BEHIN BETIKO ZERRENDA.**

Aurreko oinarrian adierazitako epea igaro ondoren, eta aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, Mancomunidad de Valdizarbe/Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakariak ebazpena emango du onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzeko. Ebazpena Mankomunitate honetako iragarki oholean eta [www.mancomunidadvaldizarbe.com](http://www.mancomunidadvaldizarbe.com) web orrialdean argitaratuko da, baita probak egiteko tokia eta ordua ere.

Izangai onartu eta baztertuen zerrendak argitaratzearekin, egintzat joko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritako ondorioetarako (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea).

### **ZAZPIGARRENA. - OPOSIZIOALDIA**

7.1. Oposizioaldian **proba teoriko-praktikoa** egin beharko da, bi zati baztertzailerekin. Ariketa plika sistemaren bidez egingen da. Epaimahaiak zehaztuko du proba hau egiteko izangaiek zenbat denbora izanen duten probaren hasieran. **Probak 2023ko urtarrilaren erdialdean egingen direla aurreikusten da.**

Probaren lehenengo zatia teorikoa izango da, eta **test motako 40 galdera** erantzun beharko dira idatziz. Galdera bakoitzetik erantzun bakarra izanen da egokia, deialdi honetako I. eranskinean agertzen den gai-zerrendako gai ei buruz.

Erantzun zuzen bakoitzari puntu bat emanen zaio, eta erantzun oker bakoitzagatik 0,25 puntu kenduko da.

Ariketa horretan gehienez 40 puntu lor daitezke. Bazterturik geldituko dira ariketan gutxienez 20 puntu lortzen ez dituztenak.

Proba hau egiteko ezin da inolako testurik kontsultatu, ez eta kalkulagailurik edo bestelako materialik erabili ere, bolaluma urdina edo beltza ez bada.

Probaren bigarren zati teoriko-praktikoan **idatziz garatu eta ebatzi beharko dira epaimahaiak proposaturiko gai eta kasu praktikoak**, I. eranskineko gai-zerrendakoei buruzkoak.

Bigarren proba honetan gehienez 30 puntu lor daitezke. Bazterturik geldituko dira ariketan gutxienez 15 puntu lortzen ez dituztenak.

7.2. Epaimahaiak Mankomunitate honetako iragarki oholean eta [www.mancomunidadvaldizarbe.com](http://www.mancomunidadvaldizarbe.com) webgunean argitaratuko ditu parte-hartzaileek lortutako puntuazioak, eta 3 eguneko epea irekiko du interesdunek erreklamazioak egin eta balorazioei dagokienez beren eskubideari komeni zaiena alegatu ahal izateko.



7.3. Proba egiteko deialdi bakarra egingen da. Parte hartzaileek nortasun agiri nazionala, pasaportea edo gidabaimena aldean dutela agertu beharko dute. Beren nortasuna frogatzen ez dutenak edo agertzen ez direnak bazterturik geldituko dira.

7.4. Hautaprobak egiten diren bitartean, ezgaitasun aitortua dutenentzat eta eskabidean hala eskatu dutenentzat, denbora eta baliabide aldetik behar diren egokitzapenak egingen dira.

7.5. Euskara maila neurtzeko proba oposizioaldia **egin aurretik** egingo da, baldin eta eskatutako ezagutza agiri bidez egiaztatzen ez badute (B2 maila) eta proba egiteko interesa adierazi badute, eskabidean hala eskatuta. Proba Nafarroako Gobernuak Euskarabideak egingen du, eta baztertuta geldituko dira maila hori onartzen ez dutenak.

### **ZORTZIGARRENA. - LEHIAKETALDIA.**

8.1. Oposizioaldia gainditu dutenei bakarrik baloratuko zaizkie merezimenduak. Epaimahaiak izangai bakoitzak alegatutako merezimenduak baloratuko ditu, ondoko baremoaren arabera.

Merezimendu guztiak hautapen prozesu honetan parte hartzeko eskabidea aurkezten denean alegatu eta frogatu beharko dira.

Merezimenduen balorazioa egin ondoren, emaitzak jendaurrean jarriko dira Mankomunitatearen iragarki oholean eta [www.mancomunidadvaldizarbe.com](http://www.mancomunidadvaldizarbe.com) webgunean.

8.2. Lehiaketaldia ez da baztertzailerik izanen, eta gehienez puntuazio osoaren %30 izanen da. Honela baloratuko da:

#### **8.2.1. Formación: hasta 10 puntos.**

-Unibertsitateko graduondoko ikasketak, "berdintasunerako agentearen" lanbideari lotuak. Goi mailako unibertsitate sistemako 200 orduko formakuntza bakoitzeko 2 puntu emanen dira, guztira 8 puntu gehienez. Ez da baloratuko 200 ordu baino gutxiagoko ikasketarik. Gutxieneko prestakuntza hori gainditurik, 200 orduetik beherako zatiei esleituko zaie dagokien puntuazio proportzionala.

-Berdintasunerako agentea izateko ikastaro burutuak, administrazio publikoek antolatutakoak. 0,25 puntu emanen da 10 orduko, eta 2 puntu gehienez. Ez da baloratuko 10 ordu baino gutxiagoko ikastarorik. Gutxieneko iraupen hori gainditurik, 10 orduetik beherako zatiei esleituko zaie dagokien puntuazio proportzionala.

#### **8.2.2. Lanbide-esperientzia: 20 puntu gehienez**

-Administrazio publikoetan besteren kontura emandako zerbitzuak, administrazio-araubidean edo lan-araubidean, berdintasun teknikari (berdintasunerako agente) bezala B mailako eginkizunak betetzen: 2 puntu lan-urte bakoitzeko, eta 12 puntu gehienez.





Kasuan kasuko administrazio publikoko organo eskudunaren ziurtagiriaren bidez frogatuko da. Ziurtagiri horretan espresuki adieraziko da zerbitzuak zenbat iraun duen, guztira zenbat egun diren adierazita. Lanaldi partzialeko zerbitzuen kasuan, honako hauek ere agertu beharko dute:

- a) egunean, astean, hilabetean edo urtean egindako orduen kopurua, eta emandako zerbitzuei dagokien urteko lanaldia;
- b) ohiko lanaldiaren aldean duten portzentajea.

-Enpresa eta/edo erakunde pribatuetan norberaren kontura emandako zerbitzuengatik, B mailako eginkizunak betetzen, berdintasunerako teknikari bezala (berdintasunerako agentea), antzeko eginkizunak edo lan kategoriak, lan egindako urte bakoitzeko puntu bat, gehienez ere 8 puntu.

Hori egiaztatu beharko da lan kontratuaren kopiarekin eta Gizarte Segurantzak emandako lan-bizitzaren ziurtagiriarekin.

Batean zein bestean, emandako zerbitzuak urte natural osokoak ez direnean, proportziozko puntuazioa emanen da, kontratuaren hasiera eta bukaera egunak aintzat harturik.

#### ***BEDERATZIGARRENA. - EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA.***

- 9.1. Probak egin ondoren, epaimahaiak puntuaziorik altuena lortu duen izangaia kontratatzeko proposamena egingen dio deialdia egin duen administrazioari.
- 9.2. Emaitzak Mancomunidad de Valdizarbe/Izarbeibarko Mankomunitatearen iragarki-taulan eta web orrian kontsulta daitezke.
- 9.3. Proposamena loteslea izanen da deialdia egin duen administrazioarentzat. Berdinketarik izanez gero, zati praktikoaren oharraren arabera ebatziko da. Berdinketak jarraituz gero, epaimahaiak zozketaz ebatziko du.
- 9.4. Hautatutako izangaia gehienez ere astebeteko epea izanen du lanpostuan hasteko, deialdia egin duen administrazioak kontratazio proposamena onartzen duenetik hasita. Eskabidean jasotako jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Lanean hasten ez bada, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, edo lanpostua hutsik geratu ondoren, organo eskudunak eskaintako kontratazioarekin ados daudela adierazten duten izangaiak kontratatu ahal izango ditu, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazio hoberenaren arabera.

#### ***HAMARGARRENA. DEIEN KUDEAKETA***

Egindako zerrenda osatzen duten pertsonen dei egin ahal izango zaie, Izarbeibarko Mankomunitatean sortzen diren beharren arabera, deialdi honen oinarrietan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritakoaren arabera.

Deia honela egingen da:

- a) Kontaktua errazte aldera, zerrenda osatzen duten pertsonen gutxienez harremanetarako telefono bat eta helbide elektronikoa bat eman beharko dizkiote Mankomunitateari. Informazio hori etengabe eguneratu beharko da.



b) Kontratua eskaintzen zaion zerrendako pertsona bakoitzari gutxienez bi lokalizazio-saiakera egingo zaizkio 24 orduz, hark emandako harremanetarako bideak erabiliz.

c) Zerrendako pertsona bat ezin bada aurkitu, zerrendako hurrengoarekin edo hurrengoekin jarriko da harremanetan, lanpostua bete arte. Harremanetan jarri ezin izan diren pertsonak dagokien zerrendan jarraituko dute.

Eta deialdi honetan xedatu ez den orotan Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren abenduaren 31ko 814/2010 Foru Agindua aplikatuko da.

### **HAMAIKAGARRENA: DATUEN BABESA**

2016/679 (DBEO) Erregelamenduaren 13. artikulua (EB) ezarritakoarekin bat honako hau jakinarazten die hautagaiei:

- Parte-hartzaileek emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Izarbeibarko Mankomunitatea da.
- Tratamenduaren helburua langileak hautatzea eta deialdi honen xede den lanpostua betetzea da.
- Hau da oinarri juridikoa: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.b) artikulua. Interesdunak parte hartzen duen kontratu bat betetzeko edo pertsona horrek eskatuta, kontratu aurreko neurriak eta art. aplikatzeko behar den tratamendua. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.c) artikulua. Tratamenduaren erantzuleari aplikatu beharreko legezko betebeharrak bat betetzeko behar den tratamendua.
- Datuak behar den denboran gordeko dira, haien xedea betetzeko eta deialditik eta datuen tratamendutik sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko. Artxibo eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da (Nafarroako toki entitateen dokumentuak ebaluatu eta ezabatzeko jarraibideak).
- Datuak legez aurreikusitako kasuetan jakinaraziko dira (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua), 5/2018 Foru Legearen 19.2. f. artikuluan ezartzen dena barne.
- Titularrek informazioa eskuratu, zuzendu, ezabatu, mugatu, aurka egin eta eramateko eskubideak erabil ditzakete udal bulegoetan.
- Halaber, eskubidea dute erreklamazioa aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (aepd.es), tratamendua indarrean dagoen araudiarekin bat ez datorrela uste badu.

### **HAMABIGARRENA. ERREKURTSOAK.**

Contra la presente convocatoria, sus bases y los actos de aplicación de la misma podrá interponerse optativamente uno de los siguientes recursos:

- A. Berraztertze errekurtsoa, egintza eman duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- B. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- C. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.



## ERANSKINA I

### ESKABIDE EREDUA

Izen-abizenak: NAN zenbakia:  
Jaiotze data eta lekua:  
Bizitokiaren helbidea:  
Telefono zenbaki finkoa: Telefono mugikorraren zenbakia:  
Posta elektronikoa:

#### AZALTZEN DU:

- Karguan aritzea galarazten dion gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez dudala.
- Indarrean dauden xedapenetan ezarritako ezintasunik ez duela.
- Ez dela diziplina espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik berezia izan, ez eta diziplinaz kaleratua ere, eta ez nagoela desgaituta eginkizun publikoak betetzeko.
- Deialdian eskatzen den titulazioa dudala.
- Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, baldintza guzti-guztiak betetzen ditudala.
- Euskararen ezagutza egiaztatzeko (dagokiona markatu):
  - Eskabide honekin batera, B2 maila gutxienez euskaraz dakiela frogatzen duen dokumentazioaren kopia aurkezten dut.
  - Euskara maila egiaztatzeko proba egiteko eskatzen du.
- Beharrezkoa bada:
  - Ezgaitasuna dudala eta, beraz, adierazten diren egokitzapenak eskatzen ditudala, adierazten diren arrazoiengatik. (Aparteko orrian zehaztuko dira eskatutako egokitzapenak eta eskaeraren arrazoiak).
  - Ezgaitasuna frogatzen duen agiria aurkezten dudala, erakunde eskudun batek emana.
- Eskabidearekin batera atxikitzen da:
  - Nortasun Agiri Nazionala.
  - Eskatutako Ziurtagiri Akademikoa.
  - Lehiaketaldirako meritua.
  - B motako gidabaimena.

Aurkeztutakoa aintzat hartuz, ESKATZEN DU iragarritako deialdian onartua izatea.  
202..ko .....ren .....a

(sinadura)

Datuen babesa.- Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, jakinarazten zaizu inprimaki honetan emandako datu pertsonalak hautaketa-prozeduran dagozkion eskumenak erabiltzeko soilik erabiliko direla, eta Izaribarko Mankomunitatearen datu-basea osatzen duten fitxategietan sartuko direla. Datuok Izarbeibarko Mankomunitatera bidaliko dira. Erregistro Orokorrean joz, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango ditu.



## ERANSKINA II: PROBA TEORIKO PRAKTIKOAREN XEDE DIREN GAIAK.

- 1.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa (atariko titulua, I. titulua, III. titulua eta IV. titulua).
- 2.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea (atariko titulua, I. titulua eta III. titulua).
- 3.- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa (I. titulua).
- 4.- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- 5.- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasun eraginkorrari buruzkoa.
- 6.- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa.
- 7.- 9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, genero-indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurriei buruzkoa.
- 8.- 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa.
- 9.- 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, emakumeenganako indarkeriaren aurka jarduteko.
- 10.- Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean koordinatzeko erakundeen arteko III. akordioa. Baterako jarduketaren protokoloa. Profesionalentzako gida. (Nafarroako Berdintasunerako Institutua).
- 11.- Genero berdintasuna Nafarroako toki entitateetan: udal berdintasun arloetako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea.
- 12.- Ibilbidea modu eraginkorrean komunikatzeko plana, udaleko berdintasun arloetako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko.
- 13.- Zainketen aldeko Ituna egiteko eta abian jartzeko gida.
- 14.- Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko Lurralde Protokoloa. Izarbeibar eta Erdialdea.
15. SAV-AIZ SLren diagnostikoa eta berdintasunerako plana
16. Bateragarritasunari buruzko SAV-AIZ S.L.ren egoeraren diagnostiko-azterlana (Reconcilia zigilua)
17. Izarbeibarko Mankomunitatearen estatutuak.